

# ...eta ekainaren 8tik 18ra arte, eskolako Agenda 21aren erakusketa

Ikasturtean ikasleek lan asko egin dute proiektu honetan; beraz, sortutako materialak era askotakoak izan dira. Monterongo erakusketa gelan material horien lagin bat ikusteko aukera

izango dugu. 26? Paneletan ikasleen lanetan aztertutako gaiak ezagutuko ditugu, besteak beste, zaborra zer den, gure herrian gaia zelan kudeatzen den, zeintzuk diren irtenbideak...



**ERAKUSKETAREN ORDUTEGIA:**  
arratsaldeko 6etatik 8ak arte

## Egileak:



## Laguntzaileak:



## Zer da eskolako Agenda 21?

Eskolako Agenda 21 da hezkuntza komunitateak hartutako konpromisoa, ikastetxeko eta bere inguruko ingurumenaren kalitatearen eta jasangarritasunaren alde lan egiteko. Konpromiso horrek berekin dakar ingurunea ezagutze-ko interesa izatea, bidegabeba dena aldatu nahi izatea eta gogoia izatea eta konpromisoa hartzea guztien orainaren eta etorkizunaren alde lan egiteko.

Oinarritzko hiru osagai ditu: ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren jasangarritasuna, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte-hartzea.



## Zeintzuk hartzen dute parte?

Proiektua Legazpiko CEIDAK eta Udalako Ingurumen Eskolak (Arrasateko Udala) zuzentzen dute eta parte-hartzea boluntarioa da. Aurtengo ikasturtean Arizmendi ikastolako Gazteluondo, Santa Teresa, San Viator Txiki, San Viator Handi, Ferixaalekua eta Almeneko ikasle eta irakasleek, eta Mesedeetako Andra Maria ikastetxeko ikasle eta irakasleek hartu dute parte, guztira 1968 ikasle ari dira garatzen Eskolako Agenda 21 proiektua.

## Zergatik zaborra?

Ikastetxeek euren zentroetako ingurumen diagnostikoa egin ondoren, 2003/2004 ikasturtean zaborra lantzea erabaki zuten.



## Egindako lana

Aurtengo ikasturtean beraz Hondakinen gaiarekin jardun dute eta azterketa eta jarduera hauek egin dituzte, besteak beste:

- Zein zaborra mota sortzen diren.
- Zaborra arazo handia da. Zabortegiek eta erraustegiek kutsadura sortzen dute.
- Papera fabrikatzeko zuhaitzak botatzeaz gain, airea eta ura kutsatzen dira.
- Naturak zer egiten duen, sortzen dituen "zaborrekin" (abarrak, hostoak eta abar).
- Zaborrek zein ondorio sortzen dituzten.
- Arrasateko kaleak garbiak dauden eta gure herrian zenbat zabor sortzen den. Nolako edukiontzia eta zaborrontziak dauden eta nahikoa diren. Jendeak zaborrak ongi bereitzen dituen; edukiontzietan sartu gabe zaborrik uzten den.

- Ikastetxe barruan:
  - Nola egoten diren ikasgelak, korridoreak eta jolas lekua; ea zaborrik egoten den lurra.
  - Zenbat eta nolako zaborrak sortzen diren.
  - Nola biltzen diren zaborrak, nora doazen eta zer egi-ten den horiekin gero.
  - Zer egin genezakeen ikastetxean zaborra gutxiago sortzeko eta sortzen ditugunak hobeto kudeatzeko.
- Eta abar.

Gaia aztertu dugunean, konturatu gara zaborren arazoa denona dela eta denok egin dezakegula zerba it hori konpontzeko. Ikasle guztiok hartu dugu parte ikastetxearen eremuan, erabakiak eta ardurak hartzean, eta gero Arrasaterentzako aurkeztu dizkizuegun proposame- n egiterakoan. Lehenengo gelaz gela adostu ditugu proposamenak, gero geletako ordezkarien batzarrean adostu ditugu eta amaizeko, aipatutako ikastetxe guz- tietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu hemen aurkeztzen dizkizuegun Arrasaterentzako proposamenak.



# Zaborra

zer den ikasi  
...eta ikusi



Gaia sakonki tratatzeko eta herriko auzo bat (Udala auzoa) aztertzeko proiektuan parte hartu duten ikasle asko Udalako Ingurumen Eskolara joan dira. Han, Zabor-txotako maskotarekin lagunduta, hainbat tailer eta ibilaldi egin dituzte.

Urte osoan egindako lanarekin, zaborraren inguruko informazioa zehatza bereganatu dute ikasleek, eta konkretuki, Arrasate herriari dagokiona.


Ikastetxeetan ekintza asko egin dira ikasgeletan eta zentroetako instalazioetan.



Arrasateko egoera hurbiletik ezagutzeko, hainbat lan egin dugu herriko hainbat txokotan. Parkeak aztertu ditugu (Monterron parkea, Santa Barbara), edukiontzia dauzken tokiak miatu ditugu, eta kaleetan hainbat galdera egin diegu arrasatearrei.

# Proiektuari buruzko hitzirik

- Mesedeetako Andra Maria Ikastetxea: "Mesede-etako ikastetxea Eskolako Agenda 21ean sartuta dago, Natura zaindu nahi dugulako. Aurten zaborraren gaia landu dugu eta zaborra gutxitzeko asko egin dezakegula konturatu gara eta gure umeengan kontzientzia handitzen ari da. Horrela jarraitzea espero dugu."
- Arizmendi ikastola: "Gure gizartearen benetako eraldaketa emateko lehenengo urratsak ematen ari gara. Ikasturte honetan hasitako lanari esker, etorkizun argiago eta garbiago bat edukitzeko aukera dugu, hiritar arduradunak, jakitunak eta partzipatiboak heziz".
- CEIDA eta Udalako Ingurumen Eskola: "Partzipazio demokratikoa ikastetxeetan lortzen da:



# Maiatzaren 28ko udalbatzarra

Arrasateko Ume eta Gazteak  
**PROTAGONISTA**

Udalbatzar berezi honetara Arrasateko ume eta gazteek ekintza proposamenak eraman dituzte, ikasturtean egindako lan eta azterketekin ateratako konklusioei eta arazoari aurre egiteko. Haurren azken ekintza izan da aurtengoz eta hona hemen zer ondorio eraman zituen udal korporazioari, zer proposamen eta, jakina, ikasleek zer konpromiso hartu dituzten gaiaren gainean:



- Gure herrian hainbat ibilbide egin ondoren, hainbat txokoren egoeraz konturatu gara:
  - Monterron parkeko beheko zatian zabor ugari topatu dugu: litxarrerria paketeak, plastikozko poltsak, latak...
  - Garibai kaleko autobus geltoki inguruan ere ikusi dugu zabor ugari pilatzen dela, batez ere zigarro hondakinak eta paperak (autobuseko tikeak...)
  - Seber Altube plaza zaborrez betetzen da arratsalderako.
  - Arrasaten eginiko ibilbide guztietan, txikle eta zigarro hondakin asko aurkitu dugu.
  - Arrasaten zehar egindako ibilbideetan hainbat arazo detektatu ditugu; horien artean txakur kakas. Hainbat tokitan, ez bazara konturatzeko, sorpresa ederra izan dezakezu. Tamalgarriena parkeetan ikusten dugu, jolasten ari diren haurrek dena ahora eramaten baitute.
  - Jendeari galdetzen diogunean ea edukiontzi bakoitzak zertarako den badakien edo ez, gehienek bailetz diote, baina oraindik batzuk nahastu egiten dira. Bestetik, zailagoa egiten zaie puntu berdea zer den jakitea, agian iaiztik dagoelako martxan.

Aurreko konklusioez hausnartu ondoren, hauexek dira gure ekintza proposamenak:

- Aztertu Monterron parkea eta Seber Altube plaza sarrago garbitu behar diren edo ez.
  - Autobus geltokian txartel informatzaile batzuk jarri beharko ziren, zaborrak nora bota gogorarazteko eta txikleak eta zigarro hondakinak ere zaborrak direla esateko. Horretaz gain, ez litzateke gaizki etorriko gaur egun lurrean itsatsitako txikleaz josita dauden txoko batzuk garbitzea.
- Arrasateko Udalak txakur kaken gaiarekin kanpaina bat antolatzea, txakurren jabeak kontzientziazteko. Bestetik, jaramonik egiten ez duten jabeei isunak jarri beharko zaizkie.
- Oraindik beharrezkoak dira herriarentzat informazio, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak.



Guk ere, ikasleok, gure konpromisoak hartu ditugu azter-tutako gaiekin:

- Paperontziak ondo erabiliko ditugu, hondakinak behar den lekuan utziko ditugu eta txikleak ez ditugu botako lurrera.
- Fruta gehiago eta gozoki gutxiago jango dugu, plastikozko gutxiago pilatzeko.
- Edukiontzia behar den bezala erabili.
- Ahal den material guztia berrerabili.
- Etxean pilak bukatzen zaizkigunean eskolara ekarri, gero birziklutzerara eramateko.

Oharra: Ikasleek udalbatzarrera eramandako dokumentu guztia Arrasateko web orrian topatu dezakezue.